



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko maiatzaren 15a

58. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—5/2015 Foru Legea, martxoaren 5ekoa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, C hepatitis daukaten gaixo nafarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eta Tafallako Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeari dagokionez Tafallako Udalak onetsitako ebazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik ez den kontusailik jaso 2013ko, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan 189. jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihesbidea –NA-132–. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Iruñearen eta Ubarmin Klinikaren arteko hiriarteko garraioaren irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, *Listeria Monocytogenes* infekzioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta furtzionamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu luzatuaren ekainaren 30eko betetze-aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa (13. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

5/2015 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Akatsak atzeman dira ondoko foru legearen akats zuzenketan: 5/2015 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Aipatu akats zuzenketa 2015eko maiatzaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, zuzenketa hauek egiten dira:

“..61. artikuluko...” dioen lekuan, honela behar du: “61. bis artikuluko...”; gaztelaniazko alean, “del artículo 189 bis...” dioen lekuan, honela behar du: “..artículo 189 bis”; eta “Laurogeita hemezortzi atalean, 39. orrian...” dioen lekuan, honela behar du: “..Laurogeita hemezortzigarren atalean, 39. orrialdean, hamabosgarren xedapen iragankorrean...”

Iruñean, 2015eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, C hepatitis daukaten gaixo nafarrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, C hepatitis daukaten gaixo nafarrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 23ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko (8-15-PES-00006) galdera egin du:

“Iragan urtarrilaren 15ean, C hepatitis daukaten gaixo nafarren ordezkariak egiten ari diren itxialdiari buruzko galdera bati erantzunez –itxialdiaren eskatzen ari direna da irizpide medikoak aplikatzea, eta ez irizpide ekonomikoak, eragin zuzeneko antibiral berrietan oinarritutako tratamendua aplikatzeko estrategian–, Nafarroako Gobernuo eledun eta bigarren lehendakariorde Sánchez de Muniain jaunak ziurtatu zuen “sendagilearen aginduz tratamendu hori behar duten pertsona guztiei” ematen ari zaiela tratamendua Nafarroan, eta tratamendua ez dela ukatuko sekula ere arrazoi ekonomikoengatik, ez eta arrazoi politikoengatik emanen ere.

Galdera honen bidez honako informazio hau eskatzen dut:

– Nafarroako Foru Komunitatean tratamendu hori jaso duten edo/eta jasotzen ari diren gaixoen kopurua.

– Zenbat gaixok behar duten tratamendu hori, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialisten arabera.”

Galdera horri dagokionez, hau erantzun du Nafarroako Gobernuo Osasuneko kontseilariak:

– Nafarroako Foru Komunitatean tratamendu hori jaso duten edo/eta jasotzen ari diren gaixoen kopurua:

Eragin zuzeneko antibiral berrien bidezko tratamendua agindu zaien gaixoak 56 dira (8 gaixo heldu den astean hasiko dira tratamendua hartzen).

– Zenbat gaixok behar duten tratamendu hori, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialisten arabera:

Ez litzateke errealista izanen sendagai horien beharra izanen duten gaixoen kopuru osoa zenbatestea, gaixo bakoitzari sendagilearen kontsultan balorazioa egin behar zaiolako tratamendua agintzeko. Nolanahi ere, sendagileen ustez tratamendu berriak behar dituzten gaixo guztiei ematen ari zaizkie eta emanen zaizkie tratamendu horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko otsailaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eta Tafallako Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeari dagokionez Tafallako Udalak onetsitako ebazpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallako Espezialitateen Zentroa eta Tafallako Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeari dagokionez Tafallako Udalak onetsitako ebazpenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 23ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Sustapeneko kontseilariaren erantzuna

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak idatziz erantzuteko egindako PES-3 eta PES-4 galderei dagokionez, zeinetan Tafallako hegoaldeko saihsbidearen proiektuari buruzko informazioa eskatzen baita, Sustapen Departamentuak hau adierazi du (erantzun bakarrean, bi galderak gai berari buruzkoak direlako eta parlamentari berak sinatu dituelako):

- Nafarroako Gobernuak ba al du erabaki horren berri?

Tafallako Udalak iragan abenduaren 30ean hartzaile zehatzik gabeko gutuna bidali zuen Nafarroako Gobernura (San Ignazio etorbidea, 1), 2014ko abenduaren 23ko osoko bilkuran aho batez hartutako erabaki bat jakinarazteko; erabaki horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hegoaldeko saihsbidea luzamendurik gabe egin dezan. Agiri hori bai Osasun Departamentura bai Sustapen Departamentura bidali zen. Beraz, Nafarroako Gobernuak badu erabaki horren berri (agiriaren kopia erantsi da).

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Tafallako Udalak aho batez onetsitako erabaki hori betetzeko?

Aipatutako jarduketaren garrantziaren jakitun da Nafarroako Gobernua. Horren erakusgarri, 2013ko martxoaren 15eko 40/2013 Foru Aginduen bidez behin betiko onetsi zuen 1. fasearen (hegoaldeko saihsbidea) proiektua, eta 9.156.957 euroko lizitazio-aurrekontua ezarri zuen (BEZa barne).

Halaber, 2014ko apirilaren 29ko 33/2014 Foru Aginduen bidez behin betiko onetsi zuen 2. fasearen (ekialdeko saihsbidea) proiektua eta 7.907.100 euroko lizitazio-aurrekontua ezarri zuen (BEZa barne).

Azpimarratzekoa da, gainera, dagoeneko 320.000 euro inguru ordaindu direla proiektuen aurretik informazio azterlana egiteko eta proiektuak berak egiteko; horrek ongi erakusten du erakunde honek proiektuetan duen interesa eta espero dugu haiek garatu ahal izatea lehentasunez, nahiko baliabide ekonomiko izaten ditugunean.

- Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako 2013rako, 2014rako eta 2015erako aurrekontuen proiektuetan Nafarroako Gobernuak ez zuen konklusioak jaso 189. zenbakiko jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihsbidea –NA-132– . Zergatik?

Gorago adierazienez, Tafallako hegoaldeko saihsbidea lehentasunezko obratzat dauka Gobernu honek, indarra duen Nafarroako Errepide Planean jasotakoen artean. Horregatik, behar adina aurrekontu-baliabide izaten ditugunean lehendabizi garatuko diren obretakoa izanen da.

Galderan aipatutako urteetan, aurrekontu-egonkortasuna lortu eta defizit publikoa murriztu beharrez, ez da behar adina baliabide izan. Izan ere, diru sarrera publikoen murrizketa handia ekarri duen egoera ekonomikoak Espainiako administrazio guztiei eragin die.

Ongi baino hobeki jakinen duzue, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak, Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluan bermatuta, printzipiotzat ezartzen du aurrekontu oreka edo superabita izan behar dutela administrazio publiko guztiek, baita sektore publikoko enpresa, fundazio eta abarrekoez ere.

Horregatik, eta politika horretan sinesten delako, Gobernuak une bakoitzean aurreikusitako diru sarreren arabera lehenetsi behar izan du egin zezakeen gastua, eta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte politiken arloetan ezarritako prestazioen maila handiari eusten saiatzera bideratu du gastu hori. Beraz, Nafarroako aurrekontu-defizitean eragina duten obretako inbertsioak murriztu

egin dira, zerga bilketaren ikuspuntutik hobeak izan diren egoeretara noiz itzuliko zain.

Nolanahi ere, arrazoi horiek alde batera utzita, oposizioko parlamentu-taldeek Nafarroako urte horietako guztietako hurrenez hurreneko aurrekontu proiektuei buruz hartu duten jarrerak ere izan du zerikusirik Sustapen Departamentutik jarduketa hori garatzeko kontusailik ez planteatzearekin.

Nafarroako Gobernuak urtez urte ongi jakin du bere urteko aurrekontu proiektuak atzera botako zirela edukiak aztertu eta eztabaidatu gabe, komenientzia politiko hutsagatik. Eraikitzaile baino suntsitzaileagoa izan den esparru horretan, gogoeta egin liteke ea komenigarria izanen ote zatekeen saihebidia finantzatzeko kontusail berri bat proposatzea.

Hipotesi gisa, obra hori egiteko kontusail berri bat proposatu izan balitz, gero Aurrekontuak beti bezala atzera bota eta kredituak ezin izanen ziratekeen berreskuratu luzatutako aurrekonturako; horrek eragina izanen zukeen Departamentuaren gastuen guztizko zenbatekoetan. Beraz, beste modu batera esanda, kontusail horiek aurreikusi izan balira ere, gero ezeztatu egingen ziratekeen, Aurrekontuak beti bezala atzera botatzen zirenean, eta, beraz, ezin izanen zatekeen obrarik burutu. Baina, gainera, berdindu ezinezko zuloa egingen zatekeen Sustapen Departamentuaren gastu ahalmenean.

Bukatzeke, itxuraz galderak iradoki nahi du, gutxienez ere, Nafarroako Gobernuari eta, hedaduraz, Gobernuan dagoen alderdiari ez zaiela axola saihebidia hori. Ez da hala, ezta gutxiago ere. Tafallako alkate Cristina Sota andrea izan da udal horretako ordezkari politiko bakarra kontseilari honengana jo izan duena, urtero, inbertsioa abian jar zedila eskatzeko. Ez du beste ordezkari politiko batek ere egin, ezta, beraz, galdera egin duen alderdiko edo parlamentu-taldeko kide batek ere.

Iruñean, 2015eko otsailaren 6an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Osasuneko kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

idatziz erantzuteko (8-15-PES-00003) hurrengo galdera egin du:

“Iragan abenduan, Tafallako Udaleko talde guztiek –UPN, PSN, Iniciativa por Tafalla eta Bildu– aho batez onetsi zuten mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen luzamendurik gabe egin zitzan Tafallarentzat eta eskualdearentzat funtsezkoak diren inbertsioak: Espezialitate Medikoen Zentroa eta Hegoaldeko Saihebidia eraikitzea.

Erabaki proposamenak honako hau zioen:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu lehentasuna eman diezaien Espezialitate Medikoen Zentroa eta Hegoaldeko Saihebidia eraikitzeke obrei, tafallarren borondatearen aurka une honetan egiten ari den interes publiko gutxiko edo batere gabeko beste inbertsio batzuen aldean.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu abian jar ditzan beharrezkoak diren ekonomia nahiz aurrekontu arloko prozedurak, hurrengo hila-beteotan luzamendurik gabe ekin ahal izateko Espezialitate Medikoen Zentroa eta Hegoaldeko Saihebidia eraikitzeke obrei”

Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

• Nafarroako Gobernuak ba al du erabaki horren berri?

Bai.

• Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Tafallako Udalak aho batez onetsitako erabaki hori betetzeko?

Bai. Bere inbertsioak lehenesteko garaian Osasun Departamentuak kontuan hartzen ditu zentreek eta zerbitzuek jakinarazten dituzten laguntza beharrak. Beraz, aipatutako lehentasunak kontuan izanik ekinen zaio zentro horri, aurrekontu baliabideen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko otsailaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, jakiteko ea zergatik ez den kontusailik jaso 2013ko, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan 189. jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihebidia –NA-132–.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea zergatik ez den kontusailik jaso 2013ko, 2014ko eta 2015eko aurrekontuetan 189. jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihebidia –NA-132–. Galdera argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 23ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak idatziz erantzuteko egindako PES-3 eta PES-4 galderei dago kienez, zeinetan Tafallako hegoaldeko saihebidearen proiektuari buruzko informazioa eskatzen baita, Sustapen Departamentuak hau adierazi du (erantzun bakarrean, bi galderak gai berari buruzkoak direlako eta parlamentari berak sinatu dituelako):

- Nafarroako Gobernuak ba al du erabaki horren berri?

Tafallako Udalak iragan abenduaren 30ean hartzaile zehatzik gabeko gutuna bidali zuen Nafarroako Gobernura (San Ignazio etorbidea, 1), 2014ko abenduaren 23ko osoko bilkuran aho batez hartutako erabaki bat jakinarazteko; erabaki horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hegoaldeko saihebidia luzamendurik gabe egin dezan. Agiri hori bai Osasun Departamentura bai Sustapen Departamentura bidali zen. Beraz, Nafarroako Gobernuak badu erabaki horren berri (agiriaren kopia erantsi da).

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Tafallako Udalak aho batez onetsitako erabaki hori betetzeko?

Aipatutako jarduketaren garrantziaren jakitun da Nafarroako Gobernua. Horren erakusgarri, 2013ko martxoaren 15eko 40/2013 Foru Agindua bidez behin betiko onetsi zuen 1. fasearen (hegoaldeko saihebidia) proiektua, eta

9.156.957 euroko lizitazio-aurrekontua ezarri zuen (BEZa barne).

Halaber, 2014ko apirilaren 29ko 33/2014 Foru Agindua bidez behin betiko onetsi zuen 2. fasearen (ekialdeko saihebidia) proiektua eta 7.907.100 euroko lizitazio-aurrekontua ezarri zuen (BEZa barne).

Azpimarratzekoa da, gainera, dagoeneko 320.000 euro inguru ordaindu direla proiektuen aurretik informazio azterlana egiteko eta proiektuak berak egiteko; horrek ongi erakusten du erakunde honek proiektuetan duen interesa eta espero dugu haiek garatu ahal izatea lehentasunez, nahiko baliabide ekonomiko izaten ditugunean.

- Nafarroako Parlamentuan aurkeztutako 2013rako, 2014rako eta 2015erako aurrekontuen proiektuetan Nafarroako Gobernuak ez zuen kontusailik jaso 189. zenbakiko jarduketa finantzatzeko: Tafallako hegoaldeko saihebidia –NA-132–. Zergatik?

Gorago adierazi denez, Tafallako hegoaldeko saihebidia lehentasunezko obratzat dauka Gobernu honek, indarra duen Nafarroako Errepide Planean jasotakoen artean. Horregatik, behar adina aurrekontu-baliabide izaten ditugunean lehendabizi garatuko diren obretakoa izanen da.

Galderan aipatutako urteetan, aurrekontu-egonkortasuna lortu eta defizit publikoa murriztu beharrez, ez da behar adina baliabide izan. Izan ere, diru sarrera publikoen murrizketa handia ekarri duen egoera ekonomikoak Espainiako administrazio guztiei eragin die.

Ongi baino hobeki jakinen duzue, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak, Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluan bermatuta, printzipiotzat ezartzen du aurrekontu oreka edo superabita izan behar dutela administrazio publiko guztiek, baita sektore publikoko enpresa, fundazio eta abarrekoek ere.

Horregatik, eta politika horretan sinesten duelako, Gobernuak une bakoitzean aurreikusitako diru sarreraren arabera lehenetsi behar izan du egin zezakeen gastua, eta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte politiken arloetan ezarritako prestazioen maila handiari eusten saiatzera bideratu du

gastu hori. Beraz, Nafarroako aurrekontu-defizitean eragina duten obretako inbertsioak murriztu egin dira, zerga bilketaren ikuspuntutik hobeak izan diren egoeretara noiz itzuliko zain.

Nolanahi ere, arrazoi horiek alde batera utzita, oposizioko parlamentu-taldeek Nafarroako urte horietako guztietako hurrenez hurreneko aurrekontu proiektuei buruz hartu duten jarrerak ere izan du zerikusirik Sustapen Departamentutik jarduketara hori garatzeko kontusailik ez planteatzearekin.

Nafarroako Gobernuak urtez urte ongi jakin du bere urteko aurrekontu proiektuak atzera botako zirela edukiak aztertu eta eztabaidatu gabe, komenientzia politiko hutsagatik. Eraikitzaile baino suntsitzaileagoa izan den esparru horretan, gogo-eta egin liteke ea komenigarria izan ote zatekeen saihebidetza finantzatzeko kontusail berri bat proposatzea.

Hipotesi gisa, obra hori egiteko kontusail berri bat proposatu izan balitz, gero Aurrekontuak beti bezala atzera bota eta kredituak ezin izan ziratekeen berreskuratu luzatutako aurrekonturako;

horrek eragina izan zuten zuteen Departamentuaren gastuen guztizko zenbatekoetan. Beraz, beste modu batera esanda, kontusail horiek aurrekusi izan balira ere, gero ezeztatu egingen ziratekeen, Aurrekontuak beti bezala atzera botatzen zirenean, eta, beraz, ezin izan zatekeen obrarik burutu. Baina, gainera, berdindu ezinezko zuloa egingen zatekeen Sustapen Departamentuaren gastu ahalmenean.

Bukatzeko, itxuraz galderak iradoki nahi du, gutxienez ere, Nafarroako Gobernuari eta, hedaduraz, Gobernuan dagoen alderdiari ez zaiela axola saihebidetza hori. Ez da hala, ezta gutxiago ere. Tafallako alkate Cristina Sota andrea izan da udal horretako ordezkari politiko bakarra kontseilari honengana jo izan duena, urtero, inbertsioa abian jar zedila eskatzeko. Ez du beste ordezkari politiko batek ere egin, ezta, beraz, galdera egin duen alderdiko edo parlamentu-taldeko kide batek ere.

Iruñean, 2015eko otsailaren 6an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Iruñearen eta Ubarmin Klinikaren arteko hiriarteko garraioaren irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñearen eta Ubarmin Klinikaren arteko hiriarteko garraioaren irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 30eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruñearen eta Ubarmin Klinikaren arteko hiriarteko garraio publiko erregularraren irisgarritasun-baldintzak betetzeari buruz (PES-7). Hona Sustapen Departamentuaren erantzuna:

Lehendabizi adierazi beharra dago Iruña eta Ubarmin Klinika lotzen dituen erabilera orokorreko

hiriarteko garraio publiko erregularraren zerbitzua, zeinaren titularra Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa baita, Burundesa S.A. enpresari esleitu zitzaiona lizitazio prozesu egokia bete ondoren. Kontratuak 2011ko abuztuaren 23ko data du, eta inaugurazio bidaia (indarrean jartzea) 2011ko irailaren 1ean egin zen.

1.- Preskripzio teknikoaren orriko 2.2.1 atalean –"gutxieneko baldintzak"– ezartzen da zerbitzu horrek ibilgailu bat edukiko duela gutxienez ere, eta horrek honako baldintza hauek bete behar dituela irisgarritasunari dagokionez: "mugikortasun murriztuko pertsonen garraioa, gorpil-aulkidunena nahiz halakorik gabekoena: 2001/85/EE Zuzentarauko VII. eranskineko 3.1 ataletik 3.11 atalera bitartekoetan ezarritakoa betetzea, mugikortasun murriztuko pertsonak ibilgailuetan sartu ahal izateko eta halako bat gorpil-aulkian garraiatu ahal izateko, ISO 10542 Arauarekin bat datorren atxikitze-sistemarekin". Nafarroako Gobernuak berma al dezake hori betetzen dela?

Emakidari atxikitako ibilgailuak, 8296-HHF matrikuladunak, 3 urte eta 2 hilabete ditu (2011ko azaroaren 28an matrikulatu zen), eta 2007/46/EE Zuzentarauari jarraituz homologatuta dago; zuzentarau horren IX. eranskinaren 3. gehigarriak dioenez, gurpil-aulkian dabiltzan erabiltzaileentzako segurtasun uhalek eta lotura mekanismoek ISO 10542 araua bete behar dute.

Ibilgailu horrek, bere fitxa teknikoan ageri denez, baditu mugikortasun murriztuko pertsonentzako 2 eserleku, bai eta plataforma jasotzailea ere.

Bestalde, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ezarritakoaren arabera, gurpil-aulkiak kokatzeko egokitutako lekua duten M3 kategoriako ibilgailuei 2001/85/EE Zuzentarauaren VII. eranskinean ezarritako moduan egin behar zaizkie berrikuspenak, eta idatzohar gisa jaso behar da Ikuskapen Teknikoan, 3. kapituluan (Barrualdeko egokitzapena) eta 10. kapituluan (Bestelakoak).

Ibilgailuaren IATa berrikusi da. Azterketa hori 2014ko azaroaren 24an gainditu zuen, eta bi elementu horiek ikuskatu zirela egiaztatu da. Beraz, ibilgailuak preskripzio teknikoan agiriaren ezarritakoa betetzen du bere homologazioari eta aldi behingo ikuskapen teknikoari dagokienez.

Bestalde, in situ ikuskapena egin da, gurpil-aulkian dabiltzan pertsonentzako sarrera sistemak nola funtzionatzen duen eta ibilgailuan nola dagoen kokatuta jakiteko. Egiaztatu da plataformak ongi funtzionatzen duela eta badaudela gurpil-aulkiarako bi leku, bakoitza bere ainguratze barrarekin, bai eta gurpil-aulkia ainguratzeko pieza sortak eta gurpil-aulkian dagoena lotzeko behar diren gailuak ere. Beraz, bai ibilgailua bai ibilgailuan dauden elementuak egokiak dira bidaiarien garraioan

2001/85/EE eta 2007/46/EE zuzentarauei jarraituz aritu ahal izateko.

Baliabideak edukitzeaz gain, ordea, behar bezala erabili behar dira. Hori dela-eta, zerbitzuaren titularra den enpresari behin eta berriz ohartarazi zaio jarraibide egokiak eman behar dituela, erabili beharreko eskuliburuaren arabera, aipatutako ainguratze eta lotura sistemak ongi erabili daitezten.

2.- Baiezkoan, garraio-zerbitzu horren administrazio-emakida bereziak zenbat ibilgailu dauzka Europako zuzentaraun azaldutako ezaugarriekin?

Agirian ezarrita dagoen bezala, ibilgailu bat atxiki zaio emakidari, 8296-HHF matrikuladuna.

3.- Preskripzio tekniko berezien orriak zenbat ibilbide eta ordutegi jasotzen ditu. Europako zuzentarau horretan ezarritako baldintzak dituen ibilgailu batek egiten al ditu horiek guztiak? Zeintzuk bai? Zein da irizpidea?

Oinarrien agiriaren arabera egin behar diren zerbitzuen ordutegiak ikuskatu ditu Garraio Zerbitzuak Iruñeko autobus geltokian, lanegunetako ordutegiak zein asteburuetakoak (oraingo ordutegiak erantsi dira). Kasu guztietan egiaztatu da baldintzak betetzen direla bai puntualtasunaren aldetik bai material mugikorraren aldetik.

Iruñean, 2014ko otsailaren 12an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, *Listeria Monocytogenes* sengatiko infekzioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, *Listeria Monocytogenes* sengatiko infekzioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 13ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zenbait gairi buruz, “*Listeria monocytogenes* bakterioak eragindako infekzio baten ondorioz hildako pertsonaren kasuaren ondotik” (8-15-PES-00012). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

- Jakinda hotzeko sistemak ez duela bermatzen bakterioa suntsitzea eta sistema hori arriskuetsua dela haurdun dauden emakumeentzat eta immunoeskasia-koadroa daukaten pertsonentzat, neurririk hartu al zen Nafarroako Ospitaleguneko elikagai-instalazioetan? Zer neurri?

Erantzuna.

Elikagaien segurtasuna batez ere prebentzioaren bidez bermatzen da, esate baterako, higie praktika onak ezarriz edota arriskuak eta kontrolgune kritikoak aztertze (AKGKA) printzipioetan oinarritutako prozedurak aplikatuz.

Hotzeko sukaldaritzaren teknikak berariazko printzipio hauek ditu oinarri:

- Jakiak prestatu, beroan edo hotzean
- Prestatu ondoren azkar hoztu
- Hotz katea ez eten jakia kontsumitzen den arte
- Bero kontsumitu behar diren jakiak kontsumitu baino lehenxeago berotu

Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak AKGKA printzipioetan oinarritutako auto-kontrolleko eta elikadura-higieneko sistemak berrikusten eta, hala behar denean, balidatzen ditu, eta zuzen aplikatu daitezkeen arduratzen da. Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetan aplikatzen den elikadura-higieneko sistemari aurkitu zaizkion arris-

kuetako bat da *Listeria monocytogenes* bakterioa maila onartezinetan ager daitekeela elikagaietan.

Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeetako AKGKA programak kontrol muga kritiko hauek ezartzen ditu janariak kontserbatzeko: 3 °C hozkailuan kontserbatzen diren janarietarako eta -18 °C janari izoztuetarako.

Janariaren lehengoratzeko termikoko tenperaturaren kontrol-muga 70 °C-tan ezarri da. Temperatura horrek bakterioaren suntsipena bermatzen du higie-sisteman ezarritako baldintzetan, eta nahitaezkoa da, horrela xedatzen duelako 2000ko abenduaren 29ko 3484/2000 Errege Dekretuak, jaki prestatuak egin, banatu eta saltzeko higie arauak ezartzen dituenak. Aipatu beharra dago arau horrek 65 °C-ko tenperatura baino ez duela eskatzen janariak lehengoratzeko.

Beraz, ospitaleetako sukaldeetan erabili ohi diren bi teknikak, “hotzeko sukaldaritzaz” eta “beroko sukaldaritzaz”, biak dira egokiak elikadura-segurtasuna bermatzeko, zerbitzatu behar diren janarietan *Listeria monocytogenes* bakterioaren ugalketa mugatu eta hura suntsitu ahal delako bi tekniketako edozein ere erabiliz, baldin eta hotz katea errespetatzen bada eta mantentze zein lehengoratzeko tenperatura egokiak aplikatzen badira. Beraz, ez dago inolako neurririk ezarri beharrik.

- Bakterio horrek arazo gehiagorik sortu al du?

Erantzuna.

Ez da sekula emaitza analitiko okerrik lortu *Listeria monocytogenes* bakterioaren kontrol mikrobiologiko analitikoetan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Nafarroako Ospitalegunean kontsumorako prest zeuden janarietatik hartutako laginetan.

- Osasun Publikoaren Institutuak hartutako lagin batean berriro detektatu zen *Listeria monocytogenes* bakterioaren presentzia, 2014ko abuztuan. Departamentuak ba al du horren berri?

Erantzuna.

2014ko irailaren 4an Osasun Publikoaren Institutuak egiaztatu zuen Yorkeko urdaiazpikoaren 25 gramoko lagin batean bazegoela *Listeria monocytogenes* bakterioa. Urdaiazpikoa kanpoko hornitzaile bati erositakoa zen, eta lagina abuztuaren 21ean hartu zen. Osasun Publikoaren Institutuko laborategian mikroorganismo horren zenbaketa egin zen eta 10 unitate kolonia-eratzaila baino gu-

txiago zenbatu ziren gramoko. Emaiza negatiboa da, irizpide mikrobiologikoei buruzko araudia aplikatuz gero. (Kontsumorako prest dauden janarietarako ezarritako muga 100 UKE da gramoko)

- Aurkikuntza hori urrian egindako bilera batean jakinarazi zen. Zer arrazoi egon zen jakinarazpena horrenbeste atzeratzeko?

Erantzuna.

Aurkikuntza horren jakinarazpena ez da inola ere atzeratu. Osasun Publikoaren Laborategiak goian aipatutako laginarekin egindako analisisen emaitzak berehala jakinarazi zizkien Osasun Publikoaren Institutuko elikadura-segurtasunaren kontrol ofizialaren arduradunei. Horren ildotik esan daiteke ez dela ez zabarkeriazko jokaerarik ez justifikatu gabeko atzerapenik izan Osasun Publikoaren Laborategiak analisisen emaitzak jakinarazteari dagokionez.

- Nafarroako Ospitalegunean *Listeria monocytogenes* bakterioak erasandako gaixorik egon al da?

Erantzuna.

2013ko otsailaren 21ean, Nafarroako Ospitaleguneko Medikuntza Prebentiboaren Zerbitzuak listeriosi kasu egiaztatu bat jakinarazi zion Osasun Publikoaren Institutuari. Kasuaren ikerketa epidemiologikoak agerian jarri zuenez, gaixoak zeukan *Listeria monocytogenes* anduia ez zen hotzean eduki eta gero berotutako janari batean isolatu zen andui bera (janari hori hornitzaile bati erosi zion Nafarroako Ospitaleguneko otordu zerbitzua kudeatzen duen enpresak). Beraz, ez zen lotura epidemiologikorik egon janariaren eta kasu klinikoren artean.

Orduz geroztik ez da deklaratu Nafarroako Ospitalegunean ospitaleratuta egon izanarekin lotura epidemiologikoa duen listeriosi kasu gehiagorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2015eko otsailaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta funtzionamenduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta funtzionamenduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 6ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Belosoko eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta funtzionamenduari buruz (8-15/PES- 00008). Hau erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

- Zentroetan bide administratibotik eta bide judizialek egoiliar gisa sartzan diren adingabeak elkarrekin al daude, eta leku eta errutina berberak al dituzte?

Nafarroan bi behaketa- eta harrera-zentro daude, babesik gabe (arriskua edo babesgabetsuna) edota gatazka sozialean egon daitezkeen adingabeei babes erantzuna emateko. Ez dira nahasi behar babes espazio horiek eta erreforma sistemara bilduta dauden adingabeei arreta emateko espazioak (Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 5/2000 Legearen bidez arautuak).

Xilema fundazioak kudeatzen du gizarte egoera zailean dauden adingabeei laguntzeko behaketa- eta harrera-zentro espezializatua (Argaray zentroa).

Ilundain fundazioak kudeatzen du gatazka sozialean dauden adingabeei laguntzeko behaketa- eta harrera-zentro espezializatua.

Ilundain fundazioak kudeatzen duen zentroa bi lekuren artean banatuta dago: egoitza bat dauka

Iruñeko Belosogoiti auzoan eta beste bat Zolinan (Aranguren ibarra).

Behaketa- eta harrera-zentro batean sartzeko bidea Administrazioaren baimena izan daiteke (Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak emana, Adingabeak Babestu eta Sustatzeko Atalaren bitartez) edo bestela Fiskaltzaren eskaera, eta, beraz, Adingabeen Fiskaltzaren berariazko baimena, gure Foru Komunitatean ditugun segurtasun kidego eta indarren bitartez bideratu ohi dena.

Azaldukoaren arabera, erreforma sistemarekin batere zerikusirik ez duten adingabeak baizik ezin dira sartu babes espazio horietan.

• Adingabeen Fiskaltzari ematen al zaio zentrori bide administratibotik heltzen diren adingabeen zerranda?

Bide administratibotik adingabe bat sartzen denean, hori zenbait modutan jakinarazten zaio Fiskaltzari:

– Lehenik, bi behaketa- eta harrera-zentroetako edozeinetan adingabe bat sartzen denean, berehala jakinarazten zaio Fiskaltzari faxez, eta zentroan sartutako adingabearen filiazio datuak ematen zaizkio.

– Gero Fiskaltzari jakinarazten zaizkio adingabeen zaintza hartzeko, uzteko edo aldatzeko hartzen diren erabaki guztiak, babes sistemara bilduta

dauden adingabe guztiei dagozkienak, bai behaketa- eta harrera-zentroetan dauden adingabeak bai familia- edo egoitza-harrerapean daudenak tartean direla.

• Zer jarduketa-protokolo jarraitzen da zentrori bide administratibotik heltzen diren adingabeekin? Zein bide judizialek heltzen direnekin?

Fiskaltza jakitun jartzeko protokolo administratiboa aurreko erantzunean azalduko da, eta berdin balio du bide administratibotik sustatzen diren sarreretarako zein Fiskaltzak sustatzen dituen sarreretarako.

Behaketa- eta harrera-zentroa larrialdietarako laguntza eta babes espazioa da. Hor hasten dira baloratzen adingabeek izan dezaketen babesgabatasunaren edo gatazka sozialaren kausak, eta balorazio prozesu konplexuari ekiten zaio. Prozesu horretan aurrera egin ahala informazioa ematen zaie legezko arduradunei eta adingabeari berari. Prozesu hori beti berdina da, sarrera bide administratibotik sustatu nahiz bide judizialek (Fiskaltza) sustatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko otsailaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu luzatuaren ekainaren 30eko betetze-aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu luzatuaren ekainaren

30eko betetze-aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko otsailaren 13ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2015eko o-

tsailaren 4ko 259 sarrera-zenbakiarekin erregistratua, aurrekontu luzatuaren ekainaren 30eko betetze-aurreikuspenari buruz (8-15/PES-0010). Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

	Hasierako kreditua	Betetze-aurreikuspena 2015/06/30erako
0 Lehendakaritza, Justizia eta Barne Dptua.	268.801.873,00	170.666.107,53
1 Ekon., Og., Ind. eta Enplegu Dptua.	1.173.066.336,00	640.099.071,87
4 Hezkuntza Departamentua	575.690.390,00	294.619.621,75
5 Osasun Departamentua	933.438.851,00	445.796.026,88
6 Sustapen Departamentua	216.092.636,00	69.088.793,28
7 Landa Gar., Ing. eta Toki Adm. Dptua.	307.606.326,00	149.145.129,03
9 Gizarte Politiketako Departamentua	258.034.947,00	122.446.530,55
A Kult., Tur. eta Erak. Harremanetako Dptua.	43.612.812,00	20.000.600,92
C Nafarroako Kontseilua	446.280,00	220.576,50
P Nafarroako Parlamentua	16.017.968,00	7.941.248,34
GUZTIRA	3.792.808.419,00	1.920.023.706,65

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2015eko martxoaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, maiatzaren 4an, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiak proposamen bat egin du auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiaz. Lanpostu horiek 2015erako Ganberako plantilla organikoan ageri dira. Proposamen horri adostasun txostenak eman dizkiote erakundeko zerbitzu juridikoeak, kontu-hartzailetzak eta administratzaileak. Hori dela-eta, Lehendakaritza honek, indarra duen arautegiarekin bat, lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia eman gabe utzi ondoren,

EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onestea, eranskineko oinarriekin bat etorriko dena.

Bigarrena. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratu dadila xedatzea.

Iruñean, 2015eko maiatzaren 4an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabeza

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Deialdi hau ondoko oinarriari lotuko zaie:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzea:

– Lehen eta hirugarren lanpostuak txanda irekikoak dira.

– Bigarrena, igoera txandakoa.

1.2. 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan edo, bestela, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta hori garatu eta betearazteko sarrera erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan xedaturikoarekin bat burutuko da oposizioa.

1.3. Igoera txandako lanpostua hutsik geldituz gero, izangaiek hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa atera ez dutelako, txanda irekiko gehituko zaie.

Bestaldetik, igoera txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok probak gainditzen badituzte, txanda horretan lanpostuak eskuratzen ez dituztenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.

1.4. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiek Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditoriako teknikari lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Beren eginkizunak Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketarako Erregelamenduaren 11. artikuluan ezarritakoak dira. Erregelamendua Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onetsi zuen 2007ko otsailaren 16an (2007ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, martxoaren 2koa). Hona hemen eginkizun horietako batzuk: a) orokorrean, auditoreek ezartzen dizkioten irizpideei jarraituz, unean-unean kontrolatzen diren zentro, erakunde eta bulegoetako kontuen, finantzen egoera-orrien, barne kontrolaren eta orotariko antolamenduaren gorabeherak, eragin-kortasun eta efizientzia aztertu eta gainbegiratzea; b) beren eginkizunetan arituz lortzen dituzten emaitzen eta ondorioei buruzko txostenak ematea

auditoreei; c) auditoreei laguntzea taldeari esleitu-tako lanaren plangintza eta antolaketa egiten, bai eta egindako kontrol lana betetzean lortutako behin-behineko emaitzak eta ondorioaz berrikusten ere, eta, d) beren eskumenen barruan, nagusi duten auditoreak esleitzen dizkien laguntza eta lankidetzako lan guztiak.

1.5. Izendapenak Kontuen Ganberako nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko ditu izendatuak eta indarra duten eskubide eta eginbeharrak izanen dituzte.

1.6. Lanpostuak B mailakoak izanen dira eta horri dagozkion lansariak izanen dituzte, eta Nafarroako Kontuen Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.7. Izendatzen den funtzionarioa Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartu eta kide-tuko da, araubide horren babesean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta hori osatzen duten xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubideko kidea bada, kasu horretan aukera izanen baitu araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaz kide zeko.

1.8. Oro har, lanaldia jarraitua izanen da, aste-lehenetik ostiralera, goizeko 07:45etik 15:15era, baina Kontuen Ganberako lehendakariak noiznahi alda dezake, zerbitzuaren beharretara egokitzeko.

2. oinarria. Izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea (deialdiaren 7.3 atalean adierazia) bukatzen den unetik eta lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.
- b) Adinez nagusia izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.
- c) Unibertsitate-diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa izatea edo ofizialki horien baliokidetzat jotzen den gradu edo titulu baten jabe izatea edo eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean lortzeko moduan egotea edo lizentzia, ingeniaritza edo arkitektura bateko lehen hiru ikasmak osorik gainditu izana.
- d) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena izatea.
- e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik baztertu gabea izatea.

2.2. Igoera txandako izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea (deialdiaren 7.3 atalean adierazia) bukatzen den unetik eta lanpostuaren jabetza hartu arte, aurreko atalean aipatzen den betebeharez gain, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioa izatea eta abiapuntuak lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo apalagokoa izatea.

c) Administrazio Publikoetan bost urteko antzintasun onartua izatea.

2.3. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte lanpostu-betetzearen prozesuak irauten duen denbora guztian. Lanpostu-betetzearen prozesua izendapenaren unean bukatzen dela ulertuko da.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Oposizioan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide-eredu ofizialarekin bat (deialdi honen I. eranskina). Bertan jarriko dituzte izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea, posta elektronikoko helbidea eta telefonoa, bai eta zein txandatan lehiatzen diren ere: irekian edo igoera-koan.

3.2. Eskabidean espresuki adierazi beharko da deialdi honetako 2. oinarrian aipatzen diren bete-behar guzti-guztiak betetzen direla, 7. oinarrian ezarritako moduan frogatu beharko direnak.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta erakunde horren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Ansoleaga kalea, 10, Iruña), egun eta ordu baliogunetan (08:30etik 14:30era bitarte, astelehenetik ostiralera), hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren bideak

erabiliz. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

Eskabidea posta bulegoan aurkeztea aukeratu gero, gutun-azalak irekita egon beharko du, postetxeko langileek data eta zigilua jar diezazkionten ziurtatu eta Nafarroako Kontuen Ganberako Erregistro Orokorrera igorri aurretik.

3.4. Ezgaitasun aitortua duten izangaiek, ariek egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean haiek eskatzea, eta hartarako, aparte orri batean adierazi beharko dute nolako minusbalioa duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera ezgaitasunen bat dutela frogatzeko legezko ezgaitasuna frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.5. Eskabide eredu interesdunen eskura egonen da Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web orrian ere.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, bai eta erakundearen iragarki-oholean eta web orrian. Zerrenda horretan izangai onartu eta baztertuen izena adieraziko da, bai eta zein txandatan lehiatzen diren ere: irekian edo igoerakoan. Izangai bazterturik ez badago zerrenda hori behin betikoa izanen da.

4.2. Interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epean.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, bai eta erakundearen iragarki-oholean eta web orrian ere.

5. oinarria. Kalifikazio-epaimahaiko kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hona hemen oposizioa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiko burua:

– Karen Moreno Orduña andrea, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

Ordezkoa: Asunción Olaechea Estanga, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

Epaimahaiko kideak:

– Isabel Brusca Alijarde, Zaragozako Unibertsitateko finantza-ekonomiako eta kontabilitateko irakasle titularra.

Ordezkoa: Vicente Condor López, Zaragozako Unibertsitateko kontabilitate eta finantzen departamentuko finantza-ekonomiako eta kontabilitateko katedraduna.

– Edurne Martincorena Matxain, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoretzako teknikaria, instituzioko langileen batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Miguel Angel Aurrecoechea Gutiérrez, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoretzako teknikaria, instituzioko langileen batzordeak izendatua.

– M^a Eugenia Zugaza Salazar, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko auditorea.

Ordezkoa: Miguel Ángel Astiz López de Letona, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko auditorea.

Idazkaria:

– Gemma Angélica Sánchez Lerma, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

Ordezkoa: José Luis Ezquerro Royo, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aitzin osatu beharko da. Ez du eraterik izanen, ez eta aritzerik ere, bertan mahaikide gehienak ez badira.

5.3. Epaimahaiaren eraketak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu.

5.5. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo dei egileari horren berri emanen diote, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azararen 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretako batean baldin badaude. Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek dagokien espezialitate teknikoan

aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

6. oinarria. Oposizioa nola eginen den.

6.1. Oposizioa 2016ko urtarrilean hasiko da. Gutxienez 2015eko azaroaren 30a baino lehen iragarriko da non eta noiz eginen den, Kontuen Ganberako iragarki oholean eta web orrian.

6.2. Hiru ariketa izanen dira, bi praktikoak eta bat teorikoa. Hona hemen proben edukia eta puntuazioa:

a) Lehen ariketa. Praktikoa. Lau orduz, kontabilitate publiko eta/edo pribatuko kasu bat edo batzuk ebatzi beharko dira. Halaber, finantza-matematikako eta estatistikako kasu praktiko batzuk bildu beharko ditu. Ariketa hori egiteko, oposizio-egileek Kontuen Ganberak emanen duen kontuen taula erabili ahal izanen dute, eta erreferentziako araudia honako hau izanen da: 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena; EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena; 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen duena aurrekontuen eta herri gastuaren arloan; 271/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuaren egiturari dagokionez garatzen duena, eta 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duena.

Lehen ariketa honetan 35 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 17,50 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

b) Bigarren ariketa. Praktikoa. Lau orduz, epaimahaiak eskatuko dituen auditoretza publiko eta/edo pribatuko kasu batzuk konpondu beharko dira. Ariketa honetan 35 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 17,50 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

c) Hirugarren ariketa. Teorikoa. Gehienez ere 5 ordu iraunen du, 30 puntuko balorazioa izanen du, eta bi zatitan eginen da, honelaxe:

1. Deialdiaren II. eranskinean jasotako gaietatik ausaz hautatutako bat idatziz garatzea. Ariketa honetan gehienez ere 15 puntu eskuratzen ahalko dira, eta gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia bederen lortu beharko da, hau da, 7,5 puntu.

2. Deialdiaren II. eranskinean jasota dauden gaietarako buruz epaimahaiak egindako 10 galderari

idatziz erantzutea. Zati honetan gehienez ere 15 puntu eskuratzen ahalko dira, 1,5 puntu galdera bakoitzeko, eta gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia bederen lortu beharko da, hau da, 7,5 puntu, eta 10 galderetatik 8tan bederen puntuazioa lortu.

6.3. Lehen bi ariketak, praktikoak, plika itxien bidez zuzenduko dira. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatzean, orriak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Izen-deiturak bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txiki batean idatziko dira. Bi gutun-azaletan epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

6.4. Ariketa teorikoa bukatu ondoren, orriak gutun-azal batean sartuko dira. Interesdunak eta epaimahaiko idazkariak sinatuko dute hegalean eta idazkariak gordeko du gutun-azala. Bidezko denean, alfabetozko hurrenkerari jarraituz, lehia-tzaileak berak sinaturiko gutun-azalak epaimahaiaren aurrean ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du. Gero, epaimahaiak kalifikatuko du.

6.5. Epaimahaiak Kontuen Ganberako iragarki oholean eta web orrian argitaratuko du ariketa bakoitzaren emaitza, kalifikatu ondoren, eta bertan adieraziko ditu, halaber, hurrengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua, gutxienez hura egin baino 48 ordu lehenago.

Ariketa bakoitzeko puntuak izangaiek hurrengo probetan lortzen dituztenei metatuko zaizkie. Horrela oposizioko puntuazio osoa lortuko da.

6.6. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra eginen da. Izangaiek aldean izan beharko dute Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako balio duen beste agiriren bat. Azterketan azaltzen ez direnak edo nortasuna frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.7. Oposizioko probak egiteko orduan, minusbalioak izan, eta halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

7. oinarria. Probak gainditzen dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Oposizioa bukatu ondoren, epaimahaiak Nafarroako Kontuen Ganberako iragarki oholean eta web orrian argitaratuko du probak gainditu dituzten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta.

7.2. Epaimahaiak puntu gehien lortu dituzten izangaia izendatzeko proposamena igorriko dio Kontuen Ganberako lehendakariari, oposizioko akta eta gainerako agiriakin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 30 egun naturalatan, proposaturiko izangaiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Nafarroako Kontuen Ganberan:

7.3.1. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioak ez diren izangaiek:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen bertze agiri baliokidderen batena.

b) Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen den titulua-ren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

c) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren fotokopia konpultsatua.

d) Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalake emandako txostena, interesdunak karguan aritzea eragozten dion eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, hura deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek egina.

e) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izanaren zinpeko aitortpena.

f) Zin egin edo hitz ematea Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Nafarroako Kontuen Ganbera ez beste Nafarroako Administrazio Publikoren bateko funtzionario edo langile finkoak diren izangaiek, gainera, aurreko administrazio espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, hots, sarrerari, antzinatasunari, mailari, egoera administrazioari eta abarrei buruzkoa.

7.3.2. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioak diren izangaiek:

a) Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen den titulua-ren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

b) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren fotokopia konpultsatua.

c) Nafarroako Kontuen Ganberak bertako funtzionario izateko eskatzen dizkion agiriak.

Minusbalioren bat alegatu duten izangaiek, gainera, hori deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek egina.

7.4. Aipatu epearen barrenean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekkeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.5. Aurreko atalean aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak probak gainditu dituztenen zerrendan, 7.1 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaiarekin beteko du baja, eta horrekin ere aurreko atalean adierazitako moduan jokatu da.

8. oinarria. Behin-behineko izendapena.

8.1. Deialdi honen 7.3 puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, ebazpen baten bidez, proposaturiko izangaia behin-behinekoz izendatuko ditu. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izendatzen diren hautagaiek hilabeteko epean jabetu beharko dute lanpostuez, izendapena jakinarazten zaienetik hasita.

8.3. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, deialdi honetako 7.3 oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezten ez dituzten edo jabetza hartzen ez duen lehiakideak oposizioaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela hartuko da, eta hala izanik, aurreko arauan adierazi zerrendan hurrengo dagoen izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria. Praktikaldia.

9.1. Auditoretzako teknikari izendatuak izateko, proposatu eta behin-behinean izendaturiko hautagaiek 6 hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dute.

9.2. Praktikaldia izangaia lanpostuaz behin-behinekoz jabetzarekin batera hasiko da alegia, izendapena jakinarazi eta hilabeteko epean.

9.3. Praktikaldian, izangai izendatuek Kontuen Ganberako gainerako auditoretza teknikariei

dagozkien eskubide eta eginbeharrak izanen dituzte.

9.4. Kontuen Ganberako lehendakariak, bertako kideei entzun ondoren, izangaiek praktikaldian izaniko etekina baloratu eta hori bukatzean kalifikazioa emanen du, gai edo ez gai, ebazpen arrazoitu baten bidez.

10. oinarria. Auditoretzako teknikariaren behin betiko izendapena eta jabetza hartzea.

10.1. Aurreko oinarrian aipatzen den praktikaldia bukatu, hautagaiek gai kalifikazioa lortuz gero, Kontuen Ganberako lehendakariak behin betikoz izendatuko ditu funtzionario. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10.2. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean, karguez jabetu beharko dute behin betikoz izangaiek.

10.3. Ulertuko da izangaie batek, epe horretan lanpostuaz jabetzen ez bada, oposizioaren ondoriozko eskubideei uko egiten diela. Kasu horretan, lanpostua deialdiko 7. oinarrian aipatzen den proposamenaren hurrengo dagoen hautagaiarekin beteko da, praktikaldia egin ondoren.

10.4. Behin-behinean izendaturiko izangaiek praktikaldian gai kalifikazioa lortzen ez badu, aurreko atalean ezarri bezala egingen da.

11. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

11.1. Izangaiek aurkezten dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, halaxe eskatu ondotik, betiere erreklamazio edo errekurtsorik jarzten ez bada. Agiriaren itzulketak berriaz eskatu beharko dute eta horretarako hiru hilabeteko epea izanen dute. Behin betikoz izendatzeko ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hiru hilabetera hasiko da epe hori.

11.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izangaiek agiriak berreskuratzeari uko egin diola ulertuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsitu egingen dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

12. oinarria. Errekurtsioak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Kontuen

Ganberako lehendakariak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daitezke:

a) Berraztertzeko errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Deialdi hau aurrera eramateko epaimahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahalko da, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Eskabide eredu

Izen-deiturak:
adina:, NAN zenbakia:, helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea):; helbide elektronikoa eta telefono zenbakia:, adeitasunez,

AZALTZEN DU:

1. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2015eko maiatzaren 4an emandako ebazpenaren berri izan duela -haren bidez auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko dei egiten da- eta hartan parte hartu nahi duela.

2. Eskabideak aurkezteko epean, deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituela eta konpromisoa hartzen duela, izendatzen badute, deialdiko 7. oinarrian aipatzen diren agiriak ezarritako epean aurkezteko eta behin-behineko izendapena jakinarazi eta hurrengo 30 egunetan praktikaldiko auditoretzako teknikari izateko lanpostuaz jabetzeko.

3. Txanda irekian aurkezten dela.

Txanda murriztuan aurkezten dela.

4. a) Ez duela minusbaliorik.

b) Minusbalioa duela, eta horregatik egokitzapena eskatu nahi duela (minusbalioaren nondik norakoak eta behar diren egokitzapenak aparteko orrian azalduko dira).

Horrenbestez,

ESKATZEN DU:

Eskabide honetan aipatzen den deialdian onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2015koaren(e)an.

II. ERANSKINA

Deialdiaren programa

1. gaia. Ekonomia publikoaren justifikazioa. Oreka orokorraren eredu teorikoa. Ekonomiaren arloko kontu-hartze publikorako oinarriak. Estatuaren funtzio fiskalak: esleitzea, banatzea eta egonkortzea. Ogasun Publikoaren teoria positiboa eta normatiboa. Ogasun Publikoaren egungo gaiak.

2. gaia. Ongizatearen ekonomiaren oinarriak. Eragimen ekonomikoa kontsumoan, ekoizpenean eta eragimen orokorrean. Esku-hartze publikoa eragimena lortzeko: merkatuaren akatsak. Ondasun publikoak. Kanpo-efektuak. Ondasun pribatuen hornidura publikoa. Esku-hartze publikoa ekitate lortzeko.

3. gaia. Osasuna, lehentasunezko ondasuna. Hezkuntza, lehentasunezko ondasuna. Mendekotasunerako arreta.

4. gaia. Enpresa publikoa. Kontzeptua. Enpresa publikoaren helburuak. Kudeaketaren funtsezko ezaugarriak. Enpresa publikoa kontrolatzeko sistema. Enpresa publikoaren finantzaketa. Kanpoko finantzaketaren iturriak. Finantza egitura.

5. gaia. Aurrekontu-zuzenbidea: kontzeptua, edukia gaur egungo arautegia. Estatuko Aurrekontu Orokorra: prestaketa, eztabaida eta onespina. Aurrekontuen egitura eta haien aldaketak. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak gai hauek nola arautzen dituen.

6. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea. Aplikazio eremua eta Nafarroako Ogasun Publikoaren araubidea. Nafarroako Aurrekontu Orokorra.

7. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea. Finantza-eragiketak. Diruzaintza Atala. Kontabilitatea. Erantzukizunak.

8. gaia. Barne kontrola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean eta 31/2010 Foru Dekretuan.

9. gaia. Zerga zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Iturriak. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra: printzipio orokorrak eta zergapekoen eskubide orokorrak. Tributuek eta horien motak. Zergen arloko kudeaketa eta diru-bilketa. Zerga-ikuskapena.

10. gaia. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna arautzen dituen esparru juridiko berria. Printzipio orokorrak eta aplikazio esparrua. Prebentzio eta zuzenketa neurriak. Autonomia erkidegoetan eta toki entitateetan aplikatzea.

11. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa: Atariko titulua. Koroa. Gorte Nagusiak. Konstituzioaren erreforma.

12. gaia. Gobernua eta Administrazioa. Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harremanak. Botere Judiziala. Estatuaren antolakuntza lurraldean arabera. Konstituzio Auzitegia.

13. gaia. Administrazio zuzenbidearen iturriak. Konstituzioa. Legea. Lege maila duten Gobernuaren xedapenak: lege dekretuak eta legegintzako dekretuak. Erregelamenduak: kontzeptua, ezaugarriak eta motak. Erregelamenduen mugak: formak eta funtsari dagozkionak. Legez kanpoko erregelamenduak.

14. gaia. Administrazio Publikoaren kontzeptua. Espainiaren antolaketa administratibo zentrala. Estatuaren administrazio periferikoa edo lurraldeetako. Administrazio organoen sorrera eta eskumenak. Entitate publikoen motak. Zerbitzu publikoak kudeatzeko modua. Zuzeneko kudeaketa. Zeharkako kudeaketa: zerbitzu publikoaren administrazio kontzesioa.

15. gaia. Administrazio-egintza: kontzeptua eta ezaugarriak. Administrazio egintzen sailkapenak. Administrazio egintzaren elementuak: subjektua, objektua, helburua eta forma. Administrazio egintzen arazoibidea. Isiltasun administratiboa.

16. gaia. Administrazio-egintza: administrazio-egintzaren eraginkortasuna. Jakinarazpena eta argitalpena. Administrazio egintzen betearazpena. Administrazio egintzen baliotasuna eta baliogabetasuna. Administrazio egintzen ofiziozko berrikuspena.

17. gaia. Europar Batasuneko zuzenbidea: kontzeptua, ezaugarriak. Europar Batasuneko zuzenbidearen iturriak. Jatorrizko zuzenbidea. Zuzenbide eratorria: Erregelamendua, zuzentarauak eta erabakiak. Europar Batasunaren Funtzionamendu Ituna. Europar Batasuneko zuzenbidearen eragina Foru Komunitatean.

18. gaia. Europa eraikitzekeko prozesua. Europar Batasuna. Batasuneko sistema instituzionala: Europako Kontseilua, Europar Batasuneko Kontseilua, Europako Batzordea, Europako Parlamentua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Europako Kontuen Auzitegia eta Europako Banku Zentrala.

19. gaia. Administrazio instituzionala. Ente instrumentalak. Bereziki aipatu arlo hori nola arautzen den Foru Komunitatean.

20. gaia. Unibertsitate-administrazioa. Unibertsitatei buruzko Lege Organikoa. Bereziki aipatu arlo hori nola arautzen den Foru Komunitatean. Nafarroako Unibertsitate Publikoa: sorrera, antolaketa eta funtzionamendua.

21. gaia. Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa. Aplikazio esparrua. Datuen babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak. Titularitate publiko eta pribatuko fitxategiak. Datuen Babeserako Agentzia. Lege organikoa garatzeko erregelamendua.

22. gaia. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea. Legearen aplikazio esparrua. Helburu eta printzipioak. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Herritarren parte-hartzea eta elkarlana. Etika eta gardentasuna gobernuaren jardueran. Betetzeko bermeak. Gaiaren erregulazioa Estatuan eta aplikazioa Nafarroan.

23. gaia. Toki Administrazioa Espainian: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. Gaiari buruzko araudia Foru Komunitatean.

24. gaia. 1839ko urriaren 25eko Legea. Lege Itundua, 1841eko abuztuaren 16koa. 1979ko urtarrilaren 26ko Errege Dekretu Itundua.

25. gaia. Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoak. 1990eko Itunaren aipamen berezia, bai eta ondoren izandako eguneratze eta aldaketa nagusia ere.

26. gaia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. Oinarriak. Nafarroako foru erakundeak. Nafarroaren ahalmen eta eskumenak. Legearen erreforma.

27. gaia. Sektore publikoa Foru Komunitatean. Hura osatzen duten entitate nagusien deskripzioa, tipologia eta definizioa. Nafarroako toki sektore publikoa: Hura osatzen duten entitate nagusien deskripzioa, tipologia eta definizioa.

28. gaia. Parlamentua edo Nafarroako Gortea: eginkizunak. Osaera, antolakuntza eta eginkizunak. Kontuen Ganberarekiko harremanak. Langileen Estatutua.

29. gaia. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko Foru Legea. Nafarroako Gobernuaren eskudantziak, antolaketa eta funtzionamendua. Parlamentuaren kontrola. Nafarroako Gobernuko lehendakariaren izendapena, eskudantziak eta estatutu pertsonala. Kontseilariak. Nafarroako Gobernuaren lege ekimena eta arau ahalmena.

30. gaia. Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko Foru Legea. Foru Komunitateko Administrazioaren antolaketa. Jarduketaren oinarri orokorrak. Administrazio prozedura. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondare-erantzukizuna. Erakunde publikoak eta haien menpeko beste entitate batzuk.

31. gaia. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa eta Nafarroako Kontseilua. Bi erakunde horien eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua.

32. gaia. Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea. Edukia eta aplikazio esparrua. Ondasunak eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Ondarearen babesa eta defentsa. Jabari publikoa eta pribatua. Enpresa-ondare publikoa.

33. gaia. Nafarroako kontratu publikoei buruzko Foru Legea. Aplikazio-esparru objektiboa eta subjektiboa. Administrazio publikoen kontratazioa, aurretiatzko jarduketak, esleitzeko prozedurak eta irizpideak, kontratuak perfektionatu, formalizatu eta betearaztea.

34. gaia. Nafarroako kontratu publikoei buruzko Foru Legea Administrazio-kontratuen motak. Administrazio publikoak ez diren beste subjektu eta entitate batzuen kontratu publikoak. Erreklamazioak kontratazioaren arloan.

35. gaia. Diru-laguntza publikoak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko Foru Legea. Diru-laguntzei buruzko lege orokorra: aplikazioa Nafarroan.

36. gaia. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea. Legearen xedea eta helburua. Lurraldearen eta hirigintzaren antolamendua. Lurzoruaren hirigintza-araubidea. Planeamenduaren exekuzioa. Esku hartzeko tresnak.

37. gaia. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileria. Langile motak. Enplegu publikoa eskuratzea. Funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea. Langile kategoria desberdinei aplikatu beharreko araubide juridikoa.

38. gaia. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileria. Egoera administratiboak, eskubideak eta betebeharrak, ordainsari eta diziplina araubidea. Lan-kontratudunak funtzionario egitea.

39. gaia. Nafarroako Toki Administrazioa. Nafarroako toki entitateen antolaketa eta administrazioa. Funtzionamendua. Ondasunak. Prozedura eta araubide juridikoa. Nafarroako toki entitateen jarduketan inpugnazioa eta kontrola. Nafarroako Administrazio Auzitegia: aurrekariak, antolaketa eta eskumenak.

40. gaia. Toki Ogasunei buruzko Foru Legea. Nafarroako toki entitateetako baliabideak. Toki Administrazioaren diru-bilketa. Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzea. Udal zergak. Aurrekontua eta gastu publikoa. Diruzaintza, kontabilitatea, kontrola eta fiskalizazioa.

41. gaia. 270/1998, 271/1998, 272/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, irailaren 21ekoak, Nafarroako Toki Ogasunen Foru legea garatu eta Nafarroako toki entitateen aurrekontu eta kontabilitate araubidea ezartzen dutenak.

42. gaia. Merkataritza sozietateak: kontzeptua eta motak. Merkataritza sozietatearen kontratuak: funtsezko elementuak. Eratzeko formalitateak. Eskritura eta erregistroko inskripzioa. Sozietate taldeak. Estatutuetako aldaketa nagusiak. Kapital sozietateen funtsezko ezaugarriak.

43. gaia. Sozietateen urteroko kontuak. Motak, prestatu, egiaztatu, onetsi eta gordetzea. Merkataritza Erregistroa: inskripzioaren kontzeptua, edukia eta esanahia.

44. gaia. Konkurtsoak: aurrekontu objektiboa eta subjektiboa. Konkurtsoaren deklarazioaren autoa eta haren eraginak. Masa aktiboa eta pasiboa zehaztea. Saikapena eta ordainketa. Hitzarmenak. Amaiera eta kalifikazioa.

45. gaia. Kontabilitate publikoa eta pribatua: oinarri orokorrak eta helburuak. Kontabilitate Publiko eta Pribatuaren Plan Orokorra: oinarriak eta egitura. Kontabilitatearen eta Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauak, Espainiara egokituak.

46. gaia. Kudeaketari buruzko informazioa Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean. Kontabilitate analitikoa toki kontabilitatearen eredu arruntaren instrukzio berrian. Kostu efektiboa toki kontabilitate publikoaren esparruan.

47. gaia. Kontuen auditoretzari buruzko Legea eta haren erregelamendua. Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutua: antolaketa eta eginkizunak.

48. gaia. Auditoretza eta haren motak. Sektore publikoaren aipamen berezia.

49. gaia. Auditoretzarako oinarriak eta arauak. Honako hauen aipamen berezia: sektore publikoa eta 100, 200, 300 eta 400 ISSAI-ES.

50. gaia. Auditoretzaren plangintza: helburuak eta egiteko faseak.

51. gaia. Auditoretzako frogak eta prozedurak. Hautaketa eta laginketarako metodoak. Auditoretzaren ebidentzia.

52. gaia. Barne kontrola: zehaztapena eta helburuak. Barne kontrolaren ebaluazioa auditorearen aldetik.

53. gaia. Auditoretzako txostenak. Orotariko gogoetak eta edukia. Iritzi motak.

54. gaia. Aurrekontuko diru-sarreraren kapituluaren gaineko auditoretza.

55. gaia. Aurrekontuko gastuen kapituluaren gaineko auditoretza.

56. gaia. Balantzearen aktiboa osatzen duten elementuen gaineko auditoretza.

57. gaia. Balantzearen pasiboa osatzen duten elementuen gaineko auditoretza.

58. gaia. Auditoretza ingurune informatikoetan: oinarriak, metodologia eta berrikusteko teknikak. Sistema informatizatuen barne kontrola eta segurtasuna.

59. gaia. Goi mailako entitate fiskalizatzaileak edo kontu auzitegiak. Ezagutza orokorra. Kontrol esparrua. Parlamentu eta gobernuekiko harremanak.

60. gaia. Administrazio publikoen kanpo kontrola. Espainian duen eraketa.

61. gaia. Espainiako Kontuen Auzitegiaren oraingo osaera, bere lege organikoan eta funtzionamendu legean: antolaketa eta eginkizunak. Europar Batasuneko Kontu Auzitegia.

62. gaia. Kontabilitatearen arloko erantzukizuna: izaera eta helburua. Kontabilitateko erantzukizunaren kasuak eta hori eskatzeko prozedurak. Kontabilitateari buruzko jurisdikzioaren organoak.

63. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbera: bilakaera historikoa eta egungo arauak. Izaera, esanahia eta eginkizunak. Nafarroako Parlamentuarekiko eta Kontuen Auzitegiarekiko harremanak.

64. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbera: antolaketa eta funtzionamendua. Funtzionamenduaren eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregelamenduak.

